SMART Technologies ULC
Azken erabiltzailearen lizentzia kontratua, software honetarako: SMART Notebook™ lankidetzaz ikasteko softwarea, 2013 eta erlazionatutako SMART softwarea

Azken berrikustea: 2013ko irailaren 23a

Mesedez, arretaz irakur ezazu softwarearen azken erabiltzailearen lizentzia-kontratu hau (aurrerantzean, «lizentzia»), software hau erabili aurretik. Lizentzia honetan jasota daude erabiltzaile-eskubideak mugatzeari eta SMART konpainiaren erantzukizunak mugatzeari buruzko xedapenak, beharbada software honekin zuk egindako erabilerari aplikagarri zaizkionak. Software hau erabiltzen baduzu, lizentzia honetako baldintzen menpe egotea onartzen duzu. Lizentzia honetako baldintzekin bat ez bazatoz, ez erabili software hau.

Lizentzia hau «azken erabiltzailea»ren (gizabanakoa edo erakundea) eta SMART Technologies ULC konpainiaren eta haren kide eta afiliatuen (aurrerantzean, «SMART») arteko legezko kontratua da, software hau erabiltzeko egina. Azken erabiltzailea erakunde bat baldin bada (adibidez, organizazio lizentziadun bat) edo lizentzia hau beste azken erabiltzaile batzuen izenean onartu baldin baduzu, a) onartzen duzu zu zarela edo erakundea dela arduradun, lizentzia honetan ezarritako baldintza, betekizun, muga eta eskakizunak beste azken erabiltzaileek jakin eta bete ditzaten, eta b) bermatzen duzu eskumena duzula lizentzia honetako baldintzak onartzeko, erakunde horren edo beste azken erabiltzaileen izenean.

1. DEFINIZIOAK:

1.1 **«Aktiboki erabiltzea»** edo **«erabilera aktiboa»** terminoek esan nahi dute software hau exekutatzea, baliatzea, erabiltzea, ibilaraztea edo bistaraztea, baina ez du barne hartzen software hau besterik gabe gailuan kargatzea edo gordetzea.

1.2 **«Ikastaldea»** terminoak esan nahi du hezitzaile-gailuen kopuru jakin baten (software produktua edo elkartutako produktu lizentziaduna erostean zehaztutako hezitzaile-gailuen kopurua) eta hezitzaile-gailuen arrazoizko kopuru baten (SMARTek aldian-aldian software-produktu aplikagarrirako ezartzen duen hezitzaile/ikasle ratioan oinarriturik parte hartuko duten ikasle-kopuruaren arabera) konbinazioa, salbu eta bestela hitzartu bada SMARTen eta erakunde lizentziadunaren artean.

1.3 **«Konputazio-gailu kualifikatua»** terminoak esan nahi du gailu hori (ordenagailu pertsonala, bestelako konputazio-, pantaila-gailua, edo baimendutako bestelako gailua), izendatutako ikastetxean erakunde lizentziadunak kontrolatua edo erakunde lizentziaduneko enplegatuen, aholkularien, ikasleen edo kide interesatuen jabetza pertsonalekoa, betiere ikastetxe horri elkarturik, baldin software hau erakunde lizentziadunari lotutako jardueretarako erabiltzen bada nagusiki, eta gizabanako horiek erakunde lizentziadunarentzat lan egiten duten edo erakunde horretan ikasten duten bitartean soilik. Konputazio-gailutzat hartuko ahalko dira ikasle-gailuak edo hezitzaile-gailuak ere, kasuan kasu.

1.4 **«Dokumentazioa»** terminoak esan nahi du SMART Technologies ULC (aurrerantzean, «SMART») konpainiaren jabetzako eskuliburuak eta jarraibide dokumentuak, software honetarakoak; berdin dio eskuliburu eta dokumentu horiek paperekoak edo elektronikoak diren.

1.5 **«Azken erabiltzailea»** (batzuetan «zu» esan zaio) izango da erakunde lizentziaduna eta, kasuan kasu, langileak (irakasleak eta hezitzaileak barne, besteak beste), aholkulariak, ikasleak eta softwarea erabiliko duen eta gunearen barruko kide izango diren bestelako interesdunak.

1.6 **«Kanpoan utzitako elementuak»** terminoak *2.2.o)* idatz-zatian adierazitako esanahia du.

1.7 **«Hezitzaile-gailuak»** terminoak esan nahi du lizentzia bidez onartuta dauden eta gehienbat irakasleek erabiltzeko diren konputazio-gailuen kopuru zehaztua (bestela esanda, erakunde lizentziadunak hezitzaileek erabiltzeko erosi duen lizentzia kopurua).

1.8 **«Bistaratze-gailu interaktiboa»** terminoak esan nahi du arbel zuri bat, pantaila digitalizatzeko gailu bat, slate bat, bistaratze-pantaila bat, monitore bat edo proiektore bat, 18” baino gehiagoko diagonaleko pantaila-neurria duena edo halako batera proiektatzen duena, eta erabiltzaileari aukera ematen diona datuen elkarrekintzarako, manipulatzeko edo aldatzeko, teklatu estandarra edo sagua ez den baliabideren bat erabiliz. Bistaratze gailu interaktiboak dira, besteak beste, ukituz edo arkatzez dabiltzan bistaratze-gailuak.

1.9 **«Produktu lizentziaduna»** da dagokion SMART konpainiaren produktu aplikagarri oro, prezioan dagokion software-aplikazioa sartuta duena. Hala ere, SMART Notebook softwareari dagokionez, ondorengo produktu lizentziadun hauek ondorengo lizentzia elkartu hau ematen dute:

a) SMART Board® arbel zuri interaktiboak SMART Notebook softwarearen lizentzia bat ematen du

b) SMART Podium™ arkatz-pantaila interaktiboak SMART Notebook softwarearen lizentzia bat ematen du

c) SMART pantaila interaktiboak SMART Notebook softwarearen lizentzia bat ematen du

d) SMART Response™ erantzun-sistema interaktiboak SMART Notebook softwarearen lizentzia pertsonal bat ematen du (erositako Response hardwarearen motako pakete bakoitzeko)

e) SMART Document Camera™ dokumentu-kamerak, dagokion kopuruan ematen ditu mota honetako lizentziak: SMART Notebook softwarearen lizentzia

f) SMART Slate™ slate harigabeak SMART Notebook softwarearen lizentzia bat ematen du

g) SMART Table® ikaste interaktiboko zentroak, dagokion kopuruan ematen ditu mota honetako lizentziak: SMART Notebook softwarearen lizentziak, azken erabiltzailearen lizentzian zehaztutakoari jarraituz

h) SMART LightRaise™ proiektore interaktiboak SMART Notebook softwarearen lizentzia bat ematen du

i) SMARTek aldian-aldian sartzen dituen beste SMART produktuak, SMARTek lizentzia-mota horretarako produktu lizentziadun gisa identifikatuak.

1.10 **«Erakunde lizentziaduna»** terminoak esan nahi du produktu lizentziaduna beretzat, izendatutako gunerako edota, hala egokituz gero, azken erabiltzailearen izenean erosi duen erakundea (edo gizabanakoa, gizabanakotzat erosi bada).

1.11 **«Mantentzea»** terminoak esan nahi du eskuragarri izatea merkaturatutako eguneratzeak (hau da, softwarearen bertsio berriak eta hobekuntzak, softwarearen funtzionalitatea edo ahalmenak hobetzen dituztenak), eta programazio-erroreen zuzenketak, service pack-ak eta bestelako eguneratzeak (hau da, argitaratutako zehaztapenei jarraituz, SMARTek softwarearen funtzionamenduan dauden errore edo hutsak zuzentzeko berrikuste txikiak edo konponbideak hornitu dizkion softwarea), mantentze programari

loturik dagoen edo harekin batera eskaini den software-lizentzia espezifikorako. Betiere, SMARTek bere mantentze-bezero harpidetuei kobrantza gehigarririk gabe eskuragarri jartzen dien hartara mugaturik. Mantentzetik kanpo uzten dira, berariaz, birus informatikoei edota SMARTek instalatu edo sartu ez duen softwarea tartean duten gatazkei loturiko zerbitzuak. Orobat, mantentzeak kanpoan uzten ditu «kanpoan utzitako elementuak», eta bestelako gehigarriak, pluginak, pertsonalizazioak, aplikazio berriak, moduluak edo bestelako softwarea, kobrantza gehigarririk gabe oro har eta aldian-aldian softwarearen erabiltzaileei eskuragarri jartzen ez zaiena, baizik eta SMARTek edo hirugarrengoek bereizita eskuragarri jartzen duena. Argiago esanda, softwarerako programazio-erroreen zuzenketa, service pack eta eguneratze zenbaitez horni ditzake SMARTek mantentze-programarik ez duten azken erabiltzaileak.

1.12 **«Gela»** terminoak esan nahi du eskolak emateko erabiltzen den gune bat. Hor sartuta daude, adibidez, ohiko ikasgelak, bistaratze-gailu interaktiborik ez duten gelak, eta ikasle-laborategiak; kanpo geratzen dira, ordea, gehienbat administrazio-eginkizunetarako erabiltzen diren gelak, zuzendariaren gela eta antzekoak, bai eta norberaren etxeko gelak eta gune horretako irakasleek urrutitik sartzeko erabiltzen dituzten beste toki batzuk ere.

1.13 **«Ikastetxe»** terminoak esan nahi du toki bakar bat, erakunde lizentziadunaren eskumenean edo kontrolpean dena, adibidez eskola bat, campus bat, edo deskribatutako legezko jabetza-titulu berberaren barruan dauden eraikin edo egituren multzo bat.

1.14 **«Gune»** terminoak esan nahi du lizentziaren xede den edozein toki; hor zenbatuko dira gelak, gune-lizentziaren ondorioetarako. Argiago esanda, hor sar daitezke ikastetxe bat, ikastetxe-barruti baten barruko hainbat ikastetxe, edo barruti bat baino gehiagoko hainbat ikastetxe, baldin guztiak erakunde lizentziadunaren eroste-eskabidean edo lizentziarako beste eskabide-agindu batean zehaztuta badaude; eta hor sar daiteke gune horretako irakasleek urrutitik erabili ahal izatea (horrela, irakasle horiek etxetik edo urrutiko beste toki batetik lan egin ahalko dute, eskolak prestatzeko).

1.15 **«SMART Notebook softwarearen lizentzia»** terminoak esan nahi du SMART Notebook softwarea erabiltzeko lizentzia bat, ondorengo *2.2.a).i)* idatz-zatian adierazi diren lizentzia-baldintzen pean izango dena.

1.16 **«SMART Response, erantzun interaktiboko sistema»** terminoak esan nahi du SMART Response softwarea, web aplikazioa eta ikasleek erabiltzen dituzten erantzuna bidaltzeko gailuak (adibidez, SMART Response eskuko gailuak edo urruneko gailuak, edo ikasle-gailuetan erantzunak bidaltzeko erabilitako softwarea), kasuan kasu.

1.17 **«Software»** terminoak esan nahi du SMARTek hornitutako jabetzazko software, kontrolatzaile eta firmware hauetako bakoitza (produktu lizentziadun elkartuan sartutako firmwarea eta kontrolatzaileak barne), eta, oro har hartuta, guztiak, erositako lizentziaren arabera: SMART Notebook™ softwarea (kanpoan utzitako elementuak salbu), SMART Notebook™ ikasleen edizioa softwarea, SMART Response™ erantzun interaktiboko softwarea (edozein modu, eta elkartutako web aplikazioa, dagokionean), SMART Notebook Math Tools™ softwarea, SMART Sync™, ikastaldea kudeatzeko softwarea, SMART Document Camera™ errealitate mistoko tresnak, SMART Notebook™ 3D tresnen softwarea, eta SMART Classroom Suite™ ikaste interaktiboko softwarea, eta bakoitzari dagozkion firmwarea, kontrolatzaileak, tresnak eta utilitateak. Horietako bakoitzak dakar(tza) objektu-kode itxurako ordenagailu-programa(k) (eguneratzeak, bertsio-berritzeak, datu-baseak eta hobekuntzak oro barne direla, ondorengo 5. idatz-zatiari jarraituz), azken erabiltzaileari eman zaizkionak, eta lizentzia honetan xedatutakoaren arabera egindako kopia oro. Softwaretzat hartuko da, orobat, SMART konpainiak azken erabiltzaileari entregatu dizkion dokumentazioa eta hirugarrenen baten softwarea. Softwarea Lizentziadun produktuetan egon edo instala daiteke, SMART konpainiaren webgunetik deskarga daiteke, SMARTek emandako CDtik edo SMART konpainiaren USBaren bidez instala daiteke.

1.18 **«Ikasle-gailuak»** terminoak esan nahi du ikastetxearen barruan gehienbat ikasleek erabil ditzaten lizentziaz eskuratutako konputazio-gailuen kopuru zehaztua (hau da, erakunde lizentziadunak erosi dituen ikasleentzako lizentzien kopurua, edo hezitzaile/ikasle ratioan oinarriturik erakunde lizentziadunari esleitu zaizkion ikasleentzako lizentzien kopurua).

1.19 **«Erabilera»** edo **«erabilia»** terminoak esan nahi du software hau zuzenean edo zeharka instalatzea, kargatzea, exekutatzea, atzitzea, erabiltzea, baliatzea, gordetzea edo bistaratzea.

2. EMANDAKO LIZENTZIA:

2.1 **Orokorra.** Lizentzia hau azken erabiltzailearen (gizabanakoa, edo lizentziaren titular den erakundea) eta SMART Technologies ULC konpainiaren arteko legezko kontratua da, software hau erabiltzeko egina. Baldin lizentziaren titular den erakundeak edo administrari-teknikariak, edo bestelako ordezkariren batek, baldintza hauek onartzen baditu lizentziaren titular den erakundeko azken erabiltzaile guztien izenean, lizentziaren titular den erakunde horren ardura da ziurtatzea azken erabiltzaile bakoitzak ulertu eta betetzen dituela lizentzia honetako baldintzak. Software hau copyright legeek eta nazioarteko copyright itunek babesten dute, bai eta jabetza intelektualaren beste lege eta itun batzuek ere. Lizentzia honetan emandako eskubideak mugatuta daude SMART konpainiak eta haren lizentzia-emaileek software honetan duten jabetza intelektualeko eskubideetara, eta ez dute barne hartzen patenteetako edo jabetza intelektualeko beste ezein eskubide. Software hau lizentziarekin erabiltzea baimentzen da (edo azpilizentziarekin, SMARTen birbanatze-eskubideei jarraituz), ez da saltzen, eta lizentzia honetako baldintza eta murriztapenen menpe dago. Baldin eta SMART konpainiak softwarea CD, DVD edo USB formatuan edo bestelako bitarteko fisikoren batean ematen badu, azken erabiltzailea izango da software hau grabatu den bitartekoaren jabe, baina SMART konpainiak eta/edo haren lizentzia-emaileek jarraituko dute softwarearen beraren jabe izaten. Lizentzia honetako baldintzek arautuko dute SMART konpainiak hornitutako ezein software-eguneratze edo bertsio-berritze (mantentze-programa baten bidez hornitutakoak barne), jatorrizko softwarea ordezten edo osatzen duena, salbu eta eguneratze horrekin batera beste lizentzia bat badator. Salbuespeneko kasu horretan, beste lizentzia horrek du arautuko.

2.2 **Lizentzia ematea.** Lizentzia honek ematen ez dituen eskubide guztiak erreserbatuta daude. Lizentziarekin erabiltzea baimenduta dagoen eta lizentziaren titular den erakundeak osorik ordaindu duen software-aplikazio bakoitzerako, SMART konpainiak ematen du, eta azken erabiltzaileak onartzen du, software hau erabiltzeko lizentzia esklusibotasungabea, besterenezina eta azpilizentzia ez daitekeena, baldintza eta muga hauek ezarrita:

a) **SMART Notebook softwarerako:**

Lizentzia motaren arabera, azken erabiltzaileari baimen hauek ematen zaizkio:

i) **SMART Notebook softwarearen lizentziarako:** Eskuratutako lizentzia bakoitzeko, azken erabiltzaileari ematen zaio SMART Notebook softwarearen lizentzia bat, zehaztutako gela bati lotua, eta lizentzia horrek azken erabiltzaileari softwarea gela horretan ondorengo gailu hauetan erabiltzeko baimena ematen dio:

A. gehienez lau (4) konputazio-gailutan, eta

B. edozein motatako bistaratze-gailu interaktiboen edozein kopuru, eta edozein motatako bistaratze-gailu ez-interaktiboen edozein kopuru, *A* idatz-zatian aipatutako konputazio-gailuei konektaturik (adibidez, hari gabeko konexioz), baldin gailu horiek guztiak zehaztutako gelan baldin badaude eta baldin gailu horiek guztiak erakunde lizentziadunaren jabetzakoak edo kontrolpekoak badira.

Irakasleak diren azken erabiltzaileek, gainera, konputazio-gailua etxean ere erabil dezakete (edo ikastetxetik kanpoko beste toki batzuetan), baldin erabilera hori eskolak prestatzeko egiten badute, eta baldin lau (4) konputazio-gailuren aktibazio-muga gainditzen ez bada.

Betiere, erakunde lizentziadunak SMART Notebook softwarearen lizentziak erosiak izan behar ditu: erakunde lizentziadunak software hori erabiltzen duen bistaratze-gailu interaktiboen kopurua adina lizentzia, gutxienez. Lau (4) aktibazio baimenduetatik

harago, azken erabiltzaileak ezin du software hau aktiboki erabili beste ezein konputazio-gailurekin (baita bistaratze-gailu interaktibo horietara konektatuta badaude ere), salbu eta softwarerako lizentzia-eskubide gehigarriak erosi badira. . Azken erabiltzaileak lizentzia hau lor dezake lizentzia bereizirik erosita, edo dagozkion produktu lizentziadunak erostearen bidez. Betiere, aplikagarri izango da *ii)* idatz-zatia.

ii) **SMART Notebook abantailazko mantentzea:** SMART Notebook softwarearen lizentziaren aktibazio baimendu bakoitzerako:

A. urtebeteko mantentzea sartuta dago software-paketearen lizentziako prezioan. Zenbait saltzaileren bitartez egindako erosketak izan ezik, urtebete hori softwarea erosi zen egunean hasiko da. Zenbait saltzailerentzat, mantentzearen aldia beste era batera kalkulatzen da, eta saltzailearen ardura da erakunde lizentziadunari bestelako kalkulatze horren berri ematea; eta

B. hasierako urtebete horretatik harago mantentze-zerbitzua iraunarazteko aukera dago, bereizirik erosita. Mantentze hori SMARTek ezarritako mantentze-hitzarmen aplikagarriko baldintzen menpe izango da. Mantentze-epea luzatzeko eragiketa mantentze-epe horren indarraldia bukatu aurretik egiten ez bada, azken erabiltzaileak une horretaraino atzeratuak dituen mantentze-zerbitzuko ordainsariak ordaindu beharko ditu mantentze-zerbitzua berriz indarrean izateko, edo dagokion lizentziarako eguneratzea eros dezake (dagokion mantentze-ordainketarekin, halakorik baldin bada).

b) **SMART Notebook gune-lizentzietarako:**

i) **SMART Notebook gune-lizentzia:** Eskuratutako SMART Notebook gune-lizentzia bakoitzeko, softwarea gunearen barruko edozein konputazio-gailutan instala daiteke (konputazio-gailu horiek, hari gabeko konexioz edo bestela, nahi beste bistaratze-gailu interaktibotara eta edozein motatako nahi beste bistaratze-gailu ez-interaktibotara konekta daitezke, baldin gailu horiek guztiak gunearen barruan badaude eta baldin erakunde lizentziadunaren jabetzakoak edo kontrolpekoak badira). Lizentzia hau baliatu ahal izateko, erakunde lizentziadunak guneren barruan dauden gelen kopuruari dagokion lizentzia eskuratu behar du. Gunearen barruan dauden softwarearen instalazio guztietarako urtebeteko mantentzea prezioaren barruan lortzen da lizentzia hori erostearekin. Gunearen barruko gelen kopurua handitzen bada (SMART Notebook gune-lizentzia eskuratzearen urtemugan egindako kalkuluari jarraituz), erakunde lizentziadunak lizentzia gehigarriak erosi behar ditu (lizentzia emateko tasen aldean oinarrituta) gela-kopuru horretarako, softwarea gela gehigarri horietan erabiltzearren eta SMART Notebook abantailazko mantentzearen gune-lizentzia baliatu ahal izaten jarraitzearren.

ii) **SMART Notebook abantailazko gune-lizentzia (mantentze-programa):** Mantentze-lizentzia hori lor dezaketenak hauek dira: *1)* SMART Notebook softwarearen gune-lizentzia bat eskuratu duten erakunde lizentziadunak, edota *2)* gune horren barruko gela bakoitzerako SMART Notebook softwarearen lizentzia bat eskuratua duen edozein erakunde lizentziadun. SMART Notebook abantailazko gune-lizentziak etengabeko mantentzea ematen du gunearen barruko SMART Notebook softwarearen instalazio guztietarako, SMART Notebook softwarearen gune-lizentzian edo dagozkion SMART Notebook softwarearen lizentzietan sartuta datorren hasierako urtebeteaz harago. Mantentze-lizentzia hori SMARTek ezarritako mantentze-hitzarmen aplikagarriko baldintzen menpe izango da. Mantentze-epea luzatzeko eragiketa mantentze-epe horren indarraldia bukatu aurretik egiten ez bada, azken erabiltzaileak une horretaraino atzeratuak dituen mantentze-zerbitzuko ordainsariak ordaindu beharko ditu mantentze-zerbitzua berriz indarrean izateko, edo dagokion lizentziarako eguneratzea eros dezake (dagokion mantentze-ordainketarekin, halakorik baldin bada).

c) **SMART Notebook ikasleen edizioa softwarerako:**

Eskuratutako lizentzia-kopuruaren arabera, azken erabiltzaileak software hau erabil dezake:

i) konputazio-gailu batean, eskuratutako lizentzia bakoitzeko, baldin software hau aktiboki erabiltzen duen eta halako software erabilerarako dagokion SMART Notebook softwarearen lizentzia ez duen bistaratze-gailu interaktibo bati lotuta edo konektatuta (baita konexio harigabe baten bidez bada ere) dagoen gailu nagusia ez bada; eta

ii) SMART Notebook ikasleen edizioa softwarea SMART USB batean instalatuta izanez gero, azken erabiltzaileak software hau erabili ahal izango du guneko edozein konputazio-gailutan, baldin konputazio-gailua ez badago software hau aktiboki erabiltzen duen eta halako software erabilerarako dagokion lizentzia ez duen bistaratze-gailu interaktibo bati lotuta edo konektatuta (baita konexio harigabe baten bidez bada ere).

d) **SMART Response softwarerako:**

Erakunde lizentziaduna SMART Response erantzun-sistema interaktiboaren jabe izanez gero (erlazionatutako eskuko gailuak barne), azken erabiltzaileak software hau (software honen PE, LE eta XE moduak barne, bai eta modu horiek konbinatzeko aukera ematen duen modu mistoa ere) erabil dezake konputazio-gailuetan. SMART Response hardwareko klase-pakete bakoitzeko (24/32 eskuko gailuz osatua), azken erabiltzaileak software hau erabil dezake bistaratze-gailu interaktibo batera edo gehiagotara konektatuta (baita konexio harigabeen bidez ere) dagoen konputazio-gailu batean. Konputazio-gailu kualifikatu gehigarrietarako lizentzia eman daiteke, softwarea bistaratze-gailu interaktiboekin erabiltzeko soilik SMART Notebook softwarearen lizentzia gehigarri baliozkoak lortzearen bidez. Erabilera hori testu honetako *2.2.a).i)* idatz-zatian ezarritako lizentzia-baldintza guztien menpe izango da. Software hau erabiliz bildutako datuak testu honetako *2.3.l)* idatz-zatiko baldintzen menpe izango da.

e) **SMART Response CE erantzun interaktiboko softwarerako:**

Hezitzaile-gailu lizentziadunen kopuruaren arabera eta ikastalde horretarako esleitutako ikasle-gailuen kopuruaren arabera, azken erabiltzaileek SMART Response softwarearen CE modua erabil dezakete, ikastaldeari dagokion esleipenaren arabera onartutako ikasle-gailuen kopuruan. Azken erabiltzaileek, orobat, SMART Notebook ikasleen edizioa erabil dezakete, ikasle-gailu lizentziadunen kopuru horretan. Bistaratze-gailu interaktibo bati konektatutako edozein hezitzaile-gailutan software hau aktiboki erabiltzeko, azken erabiltzaileak bistaratze-gailu interaktibo horrekin konektatuta dagoen (baita konexio harigabeen bidez ere) konputazio-gailuan erabiltzeko SMART Notebook **softwarearen** lizentzia baliozkoa izan edo eskuratu beharko du. Erabilera hori testu honetako *2.2.a).i)* idatz-zatian ezarritako lizentzia-baldintza guztien menpe izango da. Software hau ikasle-gailuetan erabiltzea, gailu horiek bistaratze-gailu interaktibo bati konektatuta daudenean, testu honetako *2.2.c).i)* idatz-zatian ezarritako baldintzei jarraituz egingo da. Software hau erabiliz bildutako datuak testu honetako *2.3.l)* idatz-zatiko baldintzen menpe izango da.

f) **SMART Response VE erantzun interaktiboko softwarerako (harpidetzan oinarritutako lizentzia):**

Harpidetza-epeak irauten duen denboran:

i) Lizentziaz eskuratutako hezitzaile-gailu kopuruaren arabera, azken erabiltzaileak SMART Response softwarearen VE modua erabil dezake hezitzaile-gailuen dagokion kopuruan.

Software hau edozein bistaratze-gailu interaktibotan erabiltzeko, azken erabiltzaileak SMART Notebook softwarearen lizentzia egokia izan behar du hezitzaile-gailu horretan. Erabilera hori testu honetako *2.2.a).i)* idatz-zatian ezarritako lizentzia-baldintza guztien menpe izango da, eta

ii) Azken erabiltzaileek SMART Response VE erantzun interaktiboko sistemaren web aplikazioa balia dezakete, hezitzaile-gailuei lotutako arrazoizko ordenagailu-kopuru batean (ikus testu honetako *2.2.f).i)* idatz-zatia), hezitzaile-gailuak emandako ebaluazio-identifikazioaren bidez, eta erakunde lizentziadunak emandako ikasle-identifikazioaren bidez.

iii) SMART Response softwarerako lizentzia honetako baldintzez gain, softwarean SMART Response VE modua erabiltzean dagokion SMART lineako erabilera-baldintzen orrian ezarritako erabilera-baldintza gehigarriak bete beharko dira. SMART Response VE erantzun interaktiboko sistemako web aplikazioa baliatu nahi duten azken erabiltzaileek Interneteko konexioa eta web nabigagailua izan behar dituzte, aplikazioa baliatu ahal izateko. Harpidetze-epea bukatzean, azken erabiltzaileak SMART Response VE erantzun interaktiboko sistemako web aplikaziorako sarbidea galduko du.

iv) Harpidetze-epe baliodunaren iraunaldian, azken erabiltzaileak web aplikazio horren bertsiorik eguneratuena baliatu eta erabiltzeko eskubidea izango du. Harpidetze-epe baliodunaren iraunaldian, SMART Response VE softwarerako hezitzaile-gailuen lizentziek software honen mantentzerako eskubidea izango dute. Software hau erabiliz bildutako datuak testu honetako *2.3.l)* idatz-zatiko baldintzen menpe izango da.

g) **SMART Response VE Local erantzun interaktiboko softwarerako:**

i) Azken erabiltzaileak SMART Response softwarearen VE Local modua erabil dezake aurreko *2.2.f)*, *i)* eta *ii)* idatz-zatietan ezarritako lizentzia-eredu berari jarraituz.

ii) SMART Response softwarerako lizentzia honetako baldintzez gain, softwarean SMART Response VE Local modua erabiltzean dagokion SMART lineako erabilera-baldintzen orrian ezarritako erabilera-baldintza gehigarriak bete beharko dira. Oso-osorik erakunde lizentziadunaren ardura izango da erabiltzaileei aholku ematea erakunde lizentziadunaren ezein erabilera-baldintzez, edo erabilera onargarriari buruz zer espero den.

iii) Software hau erabiliz bildutako datuak testu honetako *2.3.l)* idatz-zatiko baldintzen menpe izango da. Erakunde lizentziadunak onartzen du SMARTek halako daturik ez duela jasoko eta ez duela datu horien erregistroak mantentzeko ardurarik izango.

iv) Urtebeteko mantentzea sartuta dago softwarearen lizentziako prezioan. Urtebete hori softwarea erosi zen egunean hasiko da. Hasierako urtebete horretatik harago mantentze-zerbitzua iraunarazteko aukera dago, bereizirik erosita. Mantentze hori SMARTek ezarritako mantentze-hitzarmen aplikagarriko baldintzen menpe izango da. Mantentze-epea luzatzeko eragiketa mantentze-epe horren indarraldia bukatu aurretik egiten ez bada, azken erabiltzaileak une horretaraino atzeratuak dituen mantentze-zerbitzuko ordainsariak ordaindu beharko ditu mantentze-zerbitzua berriz indarrean izateko, edo dagokion lizentziarako eguneratzea eros dezake (dagokion mantentze-ordainketarekin, halakorik baldin bada).

v) Erakunde lizentziadunen ardura izango da zerbitzaria ostatatzea, SMART Response VE Local moduko zerbitzariaren, domeinu-izenaren eta lotutako webgunearen jardun-denbora, mantentzea eta egonkortasuna.

vi) SMART Response VE Local moduko erantzun interaktiboko sistemako web aplikazioa baliatu nahi duten azken erabiltzaileek intraneteko konexioa eta web nabigagailua izan behar dituzte, aplikazioa baliatu ahal izateko.

h) **SMART Notebook Math Tools softwarerako:**

Lizentziaz baimendutako ordenagailu-kopuruaren arabera, lizentzia bakoitzak azken erabiltzaileari eskubidea ematen dio software hau erabiltzeko ordenagailu bakar batean. Azken erabiltzaileak lizentzia honen baldintza guztiak onartu behar ditu software hau ordenagailu batean instalatzen duen bakoitzean. Software honek behar bezala funtziona dezan, azken erabiltzaileak ordenagailu horretan erabiltzeko SMART Notebook softwarearen bertsio bateragarri bat izan behar du, eta horren erabilerak *2.2.a)* idatz-zatian zehaztu diren lizentzia-baldintza guztiak bete beharko ditu.

i) **SMART Sync, ikastaldea kudeatzeko softwarerako:**

Ikastalde horretarako lizentziaz baimendutako hezitzaile-gailuen eta ikasle-gailu elkartuen kopuruaren arabera, azken erabiltzaileek erabil ditzakete:

1) software honen irakasle-instalazioko bertsioa, lizentziaz baimendutako hezitzaile-gailuen kopuruari dagokion hezitzaileentzako konputazio-gailuen kopuruan, eta

2) software honen ikasle-instalazioko bertsioa, ikastalde horretarako lizentziaz baimendutako ikasle-gailuen kopuruari dagokion ikasleentzako konputazio-gailuen kopuruan.

j) **SMART Document Camerako errealitate mistoko tresnetarako:**

Erakunde lizentziadunak eskuratutako SMART Document Camera bakoitzeko, azken erabiltzaileak software hau erabil dezake, software hau produktu lizentziadun elkartuan erabiltzen den bitartean behar diren konputazio-gailu guztietan. Software honek behar bezala funtziona dezan, azken erabiltzaileak konputazio-gailu horietako bakoitzean erabiltzeko SMART Notebook softwarearen bertsio bateragarri baten baliozko lizentzia izan behar du, eta horren erabilerak *2.2.a)* idatz-zatian zehaztu diren lizentzia-baldintza guztiak bete beharko ditu. Produktu lizentziadun bakoitzeko, SMART Notebook softwarearen lizentzia bat ematen da, konputazio-gailu horretan erabiltzeko. Erabilera hori testu honetako *2.2.a).i)* idatz-zatian ezarritako lizentzia-baldintza guztien menpe izango da. SMART Document Camerako errealitate mistoko tresnen instalazio bakoitzak SMART Notebook 3D tresnen softwarea dakar.

k) **SMART Notebook 3D tresnen softwarerako:**

SMART Document Camerako errealitate mistoko tresnetatik bereiz lizentziatutako software honetarako, lizentziaz baimendutako ordenagailu-kopuruaren arabera, lizentzia bakoitzak azken erabiltzaileari eskubidea ematen dio software hau erabiltzeko ordenagailu bakar batean. Software honek behar bezala funtziona dezan, azken erabiltzaileak ordenagailu horretan erabiltzeko SMART Notebook softwarearen bertsio bateragarri bat (10.8 bertsioa edo goragokoa) izan behar du, eta horren erabilerak *2.2.a)* idatz-zatian zehaztu diren lizentzia-baldintza guztiak bete beharko ditu.

l) **SMART Classroom Suite ikaste interaktiboko softwarerako:**

Ikastalde horretarako lizentziaz baimendutako hezitzaile-gailuen eta ikastaldeko esleitutako ikasle-gailu elkartuen kopuruaren arabera, ondorengo lizentzia hauek ematen dira:

i) **SMART Notebook softwarea - SMART Classroom Suite instalazioa:**

Azken erabiltzaileei SMART Notebook softwarearen lizentzia bat (1) ematen zaie, lizentziatutako hezitzaile-gailu bakoitzeko. Erabilera hori testu honetako *2.2.a).i)* idatz-zatian ezarritako lizentzia-baldintza guztien menpe izango da.

ii) **SMART Notebook ikasleen edizioa softwarea – SMART Classroom Suite instalazioa:**

Ikastaldeko elkartutako ikasle-gailuen kopuruaren arabera, azken erabiltzaileek software hau ikasle-gailuen kopuru horretan erabil dezake, testu honetako *2.2.c)* idatz-zatian zehaztutako eran.

iii) **SMART Response CE erantzun interaktiboko softwarea - SMART Classroom Suite instalazioa:**

Lizentziaz baimendutako hezitzaile-gailuen kopuruaren arabera, azken erabiltzaileek software hau erabil dezakete (CE moduan) hezitzaile-gailuen kopuru horretan. SMART Notebook ikasleen edizioa softwarearen lizentzia ematen zaie (testu honetako *2.2.c)* idatz-zatian ezarritakoari jarraituz) ikasle-gailuen kopuru elkartuari.

iv) **SMART Sync softwarea - SMART Classroom Suite instalazioa:**

Ikastalde horretarako lizentziaz baimendutako hezitzaile-gailuen eta ikasle-gailu elkartuen kopuruaren arabera, azken erabiltzaileek erabil ditzakete:

i) software honen irakasle-instalazioko bertsioa, lizentziaz baimendutako hezitzaile-gailuen kopuruari dagokion irakasleentzako konputazio-gailuen kopuruan, eta

ii) software honen ikasle-instalazioko bertsioa, ikastalde horretarako lizentziaz baimendutako ikasle-gailuen kopuruari dagokion ikasleentzako konputazio-gailuen kopuruan.

m) **Probatzeko bertsioak.** Aurreko lizentzia-emate horiei loturik, azken erabiltzaileak erabil dezake aplikagarri den softwarearen proba-bertsioaren kopia, soilik *1)* softwarean edo softwarea deskargatzeko webgunean zehaztutako aldian, eta, aldi hori adierazi ez bada, bi aldi hauetatik lehendabizi bukatzen den hartan: *a)* azken erabiltzaileak lizentzia onartzen duen egunetik aurrera hogeita hamar (30) egun bete arte, edo *b)* azken erabiltzaileak softwarea erabili arte; eta *2)* testu honetako *2.2.a)* idatz-zatitik hasi eta *2.2.l)* idatz-zatiraino bitartean zehaztutako lizentzia-emateei jarraituz, probaldi horren barruan, eta produktu lizentziadunetan soilik egindako erabilerari buruzko mugak barne direla. Azken erabiltzaileak produktu lizentziadun elkartua(k) ez d(it)uen neurrian, softwarearen proba-bertsioa erabiltzeko baimena mugatuta dago software hori osorik funtzionala izateko produktu lizentziadun elkartua behar ez duten softwarearen zatietara. Proba-bertsioak azken erabiltzaileek softwarea proba dezaten baizik ez dira ematen, erosteari buruzko erabakia hartzeko informazioa izan dezaten. SMARTek idatziz emandako berariazko baimena izan gabe, azken erabiltzaile batek inoiz ere ez du software hau erabiltzeko eskubidea izango hirugarren baten produktuak edo zerbitzua sustatzeko helburuarekin. Kasu horretan sartuta dago erakustaldietan, erakustazoketan edo antzeko jendaurreko agerpenetan software hau erabiltzea. SOFTWAREAREN PROBATZEKO BERTSIOA ERABILTZEAREN BIDEZ, AZKEN ERABILTZAILEAK ONESTEN ETA ONARTZEN DU, SOFTWAREAN EDO HORREKIN BATERA DOAZEN MATERIALETAN ADIERAZITAKO EPEA IGARO ETA GERO, PROBATZEKO LIZENTZIA AMAITU EGINGO DELA ETA SOFTWAREAK AUTOMATIKOKI DESGAITU

EGINGO DUELA ERABILTZAILEA ETA HONEK EZINGO DUELA SOFTWAREA EZ SOFTWARE HORRETATIK ESKURATU DUEN EDUKI EDO DATURIK ERABILI, BALDIN AZKEN ERABILTZAILEAK EZ BADU EROSTEN SOFTWARE HORREN BERTSIO OSOA EDUKITZEKO LIZENTZIA. Lizentzia honetako bestelako baldintza guztiak aplikagarri zaizkio softwarea probatzeko erabiltzeari, 2.3 idatz-zatian adierazitako murrizketak barne, mugarik gabe. Probaldiaren bukaeran, azken erabiltzaileak softwarea erabiltzeko izango duen eskubidea amaituko da. Baldin azken erabiltzaileak erabakitzen badu softwarearen probatzeko bertsiotik lizentziarekin erabiltzea baimenduta dagoen softwarearen bertsio osora pasatzea softwarearen barruko lizentzia desblokeatzeko eroste-prozesua erabiliz (baldin aplikagarri bada) edo lizentzia erosteko bestelako prozesuren baten bidez, azken erabiltzaileak softwarearen bertsio desblokeatu berria erabiliko duen moduak bat etorri behar du lizentzia honetako dagozkion baldintzekin.

n) **SMART kontrolatzaileak eta firmwarea.** Azken erabiltzaileari lizentzia bat ematen zaio softwarearen firmware zatia eta kontrolatzaileak erabil ditzan, soilik SMARTek hornitutako hardwarean. Berdin dio baldin 2.2 atal honen beste azpiatal batzuetan softwarearen beste osagai batzuetarako eskubide-lizentzia zabalagoa eman bazaio ere.

o) **SMART galeria-bilduma eta gehigarriak.** SMARTek hornitutako irudiei, argazkiei, multimedia-fitxategiei, SMART Notebook fitxategiei edo orriei, atzeko planoei edo gaiei, edo SMARTek nahiz hirugarren batek hornitutako widget-ei (beherago definituak) SMART galeria osoa edo zati bat eratzen dutenei (horietako bakoitza «elementu» izenaz aipatuko dugu), erabiltzaileak ematen dien erabilera, eta SMARTek nahiz hirugarren batek hornitutako elementu gehigarrien erabilera, betiere, baldintza hauen mende izango da:

i) Azken erabiltzaileak elementuak edo elementu gehigarriak aldatu gabe atzitzen, kopiatzen, banatzen, argitaratzen, inprimatzen eta bestela erabiltzen ahal ditu elementuak, baldintza hauetakoren bat betez gero: erabilera pertsonalerako izatea edo a) erabilera pertsonalerako, edo b) barne-zirkulaziorako erakunde lizentziadunaren barruan edo bestela (adibidez, SMART Exchange webgunera birbidaltzea), baldin erabilera hori heziketa-helburuetarako soilik bada.

ii) Azken erabiltzaileak ez du elementu edo gehigarri horietan dagoen ezein marka erregistraturik, copyright-oharrik edo bestelako jabetza-oharrik ezabatuko, aldatuko edo ezkutatuko.

iii) Azken erabiltzaileak ez ditu egokituko, atzeranzko ingeniaritzaz aztertuko edo beste inola aldatuko Notebook widget-ak diren elementuak edo SMART ikasgai-ariketen tresna-kiteko txantiloi-kodea (Flash kodea barne). SMART Notebook fitxategiak, atzeko planoak, orriak, gaiak, fitxategi interaktiboak edo multimedia-fitxategiak alda daitezke, lizentzia honetako baldintzei jarraituz; besteak beste, elementuan aipatzen den iturri-informazioa edo egile originalaren aipamena mantendu eta nabarmen agertu beharko du azken erabiltzaileak.

iv) Azken erabiltzaileak ez ditu aldatuko, egokituko, atzeranzko ingeniaritzaz aztertuko edo beste inola aldatuko elementu gehigarriak.

v) Azken erabiltzaileak softwarearekin baino ez dezake erabili .widget, .galleryitem edo .gallerycollection fitxategi-formatuan den elementua, edo .addon formatuan den elementu gehigarria. Beste ezein helburutarako erabiltzea ez dago baimenduta. Azken erabiltzaileak ezin du elementua edo gehigarria erabili hirugarren baten softwarean, ez eta saltzekoa edo kuotaren trukekoa den ezein produktutan sartu ere. Azken erabiltzaileak ezin du ezein hirugarrenen softwarera inportatu ezein .widget, .galleryitem edo .gallerycollection elementu, ez eta ezein elementu gehigarri ere. Mugapen hau ezin da saihestu .widget, .galleryitem edo .gallerycollection elementuen fitxategi-formatua edo .addon fitxategi-formatua aldatuz, ez eta elementu horiek beste ezein eratara aldatuz ere.

vi) Elementuak .notebook fitxategi batera sar daitezke (fitxategi hori ikasgai baten zati bat izanik, edo .widget, .galleryitem edo .gallerycollection elementu soila baino gehiago); .notebook fitxategia beste fitxategi-formatu batera esporta daiteke; eta beste fitxategi-formatu hori hirugarrenen softwarean erabil daiteke, baldin hirugarren batena den eta saltzekoa edo kuotaren trukekoa den produkturen batean sartzen ez bada.

vii) Azken erabiltzaileek ez dute baimenik elementuak edo gehigarriak osorik edo zati batean birsaltzeko edo ezein merkataritza helburutarako erabiltzeko, berdin dio ea beste produktu edo eskaintza batean sartuta doan edo ez; eta berdin dio ea SMART galeriako elementu originala den, elementu gehigarria den, ala halako ezein elementuren deribatua den (hala ere, ikasgai-ariketen tresna-kita erabiliz sortutako elementuak merkatura ditzake azken erabiltzaileak).

viii) Azken erabiltzaileek ez dute baimenik elementuak edo gehigarriak kopuru masiboetan deskargatzeko, berdin dio ea asmoa den eduki hori merkataritza-helburuetarako erabiltzea. Eta elementuak ezin dira eskaini, banatu, transmititu edo bistaratu (forma originalean edo aldatuta) gune, produktu, eskaintza edo zerbitzu batean, ezta SMARTen eskaintzen lehiakide direnetan edo bestelakoetan ere.

Azpiatal honetan, «Notebook widget-ak» terminoak esan nahi du SMARTek edo hirugarrenek sortutako eduki interaktiboa, APIen bidez Notebook objektu-ereduarekin interakzioan jarduten duena; eta “elementu gehigarriak” terminoak esan nahi du .addon fitxategi-formatua duten elementuak, SMARTek edo hirugarrenek sortuak, .addon fitxategiaren hornitzaileari ahalbidetzen diotenak SMART Notebook erabiltzaile-interfaze grafikoa aldatzea, adibidez «Jarduera-eraikitzailea» elementu gehigarria. Hirugarrenek hornitutako Notebook widget-ak eta elementu gehigarriak «kanpoan utzitako elementuak» dira. SMART Exchange webgunearen bidez edo erlazionatutako web denden bidez erositako elementuetarako, elementu gehigarrietarako eta kanpoan utzitako elementuetarako lizentziak webgune horietako baldintzen menpe izango dira, eta ez lizentzia honetakoen menpe.

2.3 **Lizentziako bestelako baldintzak.** 2.2 atalean aipatutako lizentzia-emateetarako, honako baldintza gehigarri hauek bete behar dira:

a) **Kopiak.** Azken erabiltzaileak softwarearen kopia bat egin dezake, formatu elektronikoan, babeskopia gisa baizik ez. Betiere, babeskopian sartu behar dira euskarri originalak zituen marka komertzialak, copyrighta eta bestelako jabetza oharrak. Azken erabiltzaileak dokumentazioa kopia dezake, barne erabileretarako beste ezertarako ez. Azken erabiltzaileak ezin ditu softwarearen kopiak edo softwarearen ezein zatiren kopiak banatu, ez eta softwarearen kopiak egin ere, idatz-zati honetan deskribatuaz harago edo 2.2 idatz zatian ezarritako lizentzia-baldintza aplikagarrietan deskribatuaz harago.

b) **Eskubideak babestea.** Berariaz ematen ez diren eskubide guztiak, beretzat erreserbatuta ditu SMART konpainiak.

c) **Hirugarrenen bistaratze-gailu interaktiboetan erabiltzea.** Banakoek SMART Notebook Express (helbidea: express.smarttech.com) edo SMART Notebook for Web Beta (helbidea: www.smartnotebook.com edo beste domeinu batzuk) erabili ahal izango dituzte, bakoitza bere webguneko erabilera-baldintzen menpe, edozein gailurekin, baita hirugarrenen bistaratze-gailu interaktiboekin ere. Azken erabiltzaileak SMART Notebook, SMART Response edo SMART Notebook ikasleen edizioa softwarea erabili nahi badu edozein hirugarrenen bistaratze-gailu interaktiboarekin, azken erabiltzaileak aurrez SMART Notebook softwarearen lizentzia lortu beharko du, arestian zehaztutako baldintzei jarraituz.

d) **Azken erabiltzailearen aldaketak eta hobekuntzak.** Azken erabiltzaileak ezin du software hau aldatu, hobetu, egokitu, bestelakotu, edota software honetan oinarritutako obra eratorriak sortu, edo software hau edo haren ezein osagai konbinatu edo banandu, aurrez SMART konpainiaren idatzizko baimena izan gabe.

e) **Atzeranzko ingeniaritzaren aurkako debekua.** Azken erabiltzaileak ezin dio software honetako edo haren ezein osagaitako iturburu kodeari —edo haren azpian dautzan ideiei, algoritmoei, egiturari edo antolakuntzari— atzeranzko ingeniaritza, atzeranzko konpilazioa, itzulpena, deskonpilatzea, desmihiztatzea, aldaketa, obra eratorria edo beste inolako eratortze saiorik egin, ezein helburutarako, ezta software honen barruko teknologiaren ezein alderdi aurkitzeko ere. Azken erabiltzaileak halako jarduerei ekin diezaieke, bi baldintza hauek betez gero: batetik, independenteki garatutako beste informatika programa batzuekiko interroperabilitatea lortzeko gutxieneko neurrian baizik ez egitea jarduera horiek; eta, bestetik, arestian aipaturiko murriztapenak gorabehera lege aplikagarriak jarduera hori berariaz eta hertsiki baimentzen duen gutxieneko neurrian baizik ez egitea.

f) **Transferitzea.** Lizentzia honetan berariaz baimendutako moduan ez bada, azken erabiltzaileak ezin dio software hau edo software honen ezein osagai beste inori alokatu, errentan eman, laga, azpilizentziatu, banatu edo hornitu. Mugaketa hori ezargarri zaio azken erabiltzaileak produktua instalatzeko edo aktibatzeko jaso duen, edo SMART konpainiak eskaini duen, produktuaren lizentziaren gakoari ere. Mugaketa hori, era berean, ezargarri zaio webgune publikoetan software honen edozein zati argitaratzeari;

g) **Lege aplikagarriak.** Lege aplikagarri guztiak bete behar ditu azken erabiltzaileak, software hau eta haren zeinahi osagai erabiltzeari dagokionez.

h) **Jabetza-oharrak.** Azken erabiltzaileak marka komertzialen, copyrightaren eta bestelako jabetzaren ohar guztiak mantendu behar ditu software honen kopia guztietan.

i) **Hirugarrenen programak erabili ahal izatea.** Software honekin batera hirugarrenen software programak eta edukiak (aurrerantzean, «hirugarrenen osagaiak») etor daitezke, eta hirugarrenen osagai horiek erabiltzeko beharbada hirugarrenengandik azken erabiltzailearen lizentzia berezia lortu beharko da. Horietakoren batzuk agertuko zaizkizu, beharbada, software honen hasierako instalazioan edo geroagoko eguneratzeetan. Lizentzia honetan deskribatutako eskubideetako bat ere ez zaie aplikatzen hirugarrenen osagai horiei, baldin azken erabiltzailearen lizentzia-kontratu bereizia badakarte. Doakoak edo iturburu irekikoak diren hirugarrenen osagaietako batzuk eskuragarri jartzen dizkizugu, bakoitza bere lizentzien baldintzei lotuta («Honi buruz» leihoko «Jabetza intelektuala» fitxan aipatu ditugu lizentzia horiek). Baldintza horiek Lizentzia honetan jasotakoak ez bezalakoak izan daitezke, edo baldintza gehigarriak izan daitezke. Lizentzia hau onartzeak, orobat, baieztatzen du azken erabiltzaileak doako edo iturburu irekiko lizentziaren baldintzak onartzen dituela. SMART konpainiak ez du hirugarrenen osagaiak eskaintzen dituzten hirugarrenek emandako ezein produktu edo zerbitzu onesten edo sustatzen. Softwareak, era berean, SMARTen garatze tresnak eta utilitateak izan ditzake, eta horiek beharbada lizentzia bereziak izango dituzte. Onartzen duzu zure ardura dela hirugarrenen osagai horien guztien baldintzak eta SMARTen garatze-tresna eta utilitateen lizentziak irakurtzea, onartzea eta betetzea.

j) **Hirugarrenen webguneetara joateko estekak.** Hirugarrenen webguneetara joateko estekak eman dira informatzeko soilik, eta SMART konpainiak ez du inolako erantzukizunik webgune horietan emandako hirugarrenen edukien gainean (edozein produktu edo zerbitzuri buruzko informazioa barne baina ez horretara mugatuta).

k) **Softwarearen erabileraren datuak: Bezeroaren Esperientzia Programa.** Azken erabiltzaileak onartzen du azken erabiltzaileak produktuari ematen dion erabileraren informazioaren segimendua egin dezakeela SMARTek, ikerketarako eta erabilerraztasuna balioztatzeko. Eginbide honetan sartzeko ala kanpoan geratzeko aukera du azken erabiltzaileak, edo erakunde

lizentziadunak (erakunde lizentziaduneko administratzailearen bidez). Erabiltzailearen segimendu horrek ez du biltzen informazio pertsonalik (Kanadako Informazio Pertsonala Babesteko eta Dokumentu Elektronikoetarako Legean ezarritako definizioari jarraituz). Erakunde lizentziadunaren ardura da lehenetsitako aukera bere barne-irizpideekin bat datorrela ziurtatzea.

l) **SMART Response ebaluazio-softwarearen edozein modutatik bildutako erantzun-datuak.** Software honen bidez bildu edo konpilatutako edozein ebaluazio edo datu edo informazio (aurrerantzean, **«ebaluazio-datuak»**) erakunde lizentziadunaren ardura izango da. Erakunde lizentziadunak hezitzaile-gailuan, erakunde lizentziadunaren sarean edo beste biltegiragailu digitalen batean gorde beharko lituzke ebaluazio-datuak. Ebaluazio-datuak kudeatzeko gidalerroak eta jardunbideak (segurtasuna eta babeskopiak barne) erakunde lizentziadunaren ardura dira oso-osorik. Aplikatzekoa den legeak onartzen duen neurririk handienean, SMARTek uko egiten dio ebaluazio-datu horien atzitzeari, gordetzeari, kudeatzeari, PRIBATUTASUNAri, segurtasunari, osotasunari, erabilera okerrari edo babeskopiari dagokion ezein ardura edo erantzukizuni.

m) **Cookien erabilera.** SMART software-produktu batzuek edo erlazionatutako webguneek cookieak erabiltzen dituzte, azken erabiltzailearen esperientzia hobetzeko edo azterlanak egiteko, SMART konpainiaren produktu eskaintzak hobetzeko helburuarekin. Gehiago jakiteko, edo cookieak desgaitzeko, zoaz hona:

http://www.smarttech.com/Legal/Privacy+Policy#cookie, eta

n) **Edukiaren copyrighta.** Software hau edo SMART produktuak erabiliz eransten den edukiaren barruko eta eduki horri buruzko titulu eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak, zein bere eduki jabearen jabetza dira; eta, beharbada, aplikagarri diren copyright lege eta itunek eta jabetza intelektualaren bestelako lege eta itunek babesten dituzte. Xedapen honetan berariaz xedatutakoaz beste, lizentzia honek ez dio azken erabiltzaileari inolako eskubiderik ematen eduki hori erabiltzeko.

2.4 **Software honen erabilera egokia.** Azken erabiltzaileak onartzen du software honen etengabeko integritaterako, eta SMART konpainiak berari lizentzia honetan ezarritako betebeharrak betetzeko, baldintza hau bete behar dela: azken erabiltzaileak software hau behar bezala erabili eta mantentzea. Behar bezala erabili eta mantentzeko, hauek guztiak egin behar ditu azken erabiltzaileak:

a) SMART konpainiak eskaintzen dituen eguneratze eta bertsio-berritze guztiak instalatu.

b) Software hau erabiltzean, SMART konpainiak emandako dokumentazioan eta Lizentzia honetan ezarritakoa bete; eta

c) Software honen bertsio berriak instalatzeari, konponketei eta programazio erroreak zuzendu eta saihesteari dagokionez SMARTen jarraibideei jarraitzea.

3. ENTREGATZEA ETA INSTALATZEA:

3.1 **Entregatzea.** Softwarea deskarga daiteke SMART konpainiaren webgunetik, CDtik edo DVDtik, edo SMART USBan instala daiteke. Software hau Lizentziadun produktuarekin batera ez badator, Software hau FCA (Incoterms 2000) bezala entregatuko da, SMART konpainiaren fabrikan. Azken erabiltzaileak ulertzen eta onartzen du bera izango dela software honen instalazioaren arduradun lehena.

3.2 **Onarpena.** Azken erabiltzaileak onartzen du Software hau entregatutzat eta onartutzat joko dela Software hau eta/edo Lizentziadun produktua jasotzean (kasuan kasu).

4. LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK: SMARTek eskaintzen dituen laguntza teknikoko orduetan, SMART konpainiak eman dezake laguntza teknikoa, kobrantza gehigarririk gabe, softwarearen hasierako

zabaltzean sor daitekeen instalazio-arazo orotarako. Hasierako zabaltzetik geroagoko software-arazoetarako laguntza teknikoa («Laguntza teknikoko zerbitzuak») SMART konpainiak emango du, bere irizpideen arabera, eta ez da nahitaez doakoa izango. Azken erabiltzaileak onartzen du SMART konpainiak eskubidea duela tasa gehigarriak ezartzeko edota emandako laguntza teknikoko zerbitzuak ukatzeko, dagokion mantentze-epea bukatu eta gero. Laguntza teknikoko zerbitzurik egiten bada, software honen bertsio honi eta garrantzi txikiko aurreko bi bertsioei (0.X bertsiotik 0.X-2 bertsiora) mugatuta dago. Laguntza teknikoko zerbitzuen erabilera —halako erabilerarik izanez gero— honako hauek arautuko dute: dokumentazioan deskribatuta dauden SMART gidalerro eta programek, edo SMARTek emandako bestelako materialek, SMARTek aldian-aldian sartutako aldaketekin. Laguntza teknikoko zerbitzuen parte gisa Azken erabiltzaileari ematen zaion beste edozein software edo firmware, Software honen parte gisa joko da, eta Lizentzia honetako baldintzen menpe dago. Kasu orotan, azken erabiltzaileak —eta ez SMART konpainiak— izango du erantzukizuna (i) nahi dituen emaitzak lortzeko softwarea hautatzearen gainean; eta (ii) softwarea instalatzearen, erabiltzearen eta harekin lortutako emaitzen gainean. Azken erabiltzaileak onartzen du SMARTek ez duela laguntza teknikoko zerbitzurik eman beharrik izango softwarearen probatzeko bertsioetarako.

5. **SOFTWAREA ORDEZTEA, ALDATZEA EDO BERTSIO-BERRITZEA:** SMARTek eskubidea du software hau edo haren edozein osagai noiznahi ordezteko, aldatzeko edo bertsio-berritzeko. Horretarako, software honen edo haren osagaiaren ordezkapena, bertsio aldatua edo bertsio berritua eskainiko dio azken erabiltzaileari. Orobat, SMARTek eskubidea du ordezte, aldaketa edo bertsio-berritze horregatik azken erabiltzaileari kobratzeko. Ordainketa gehigarririk ez da egin beharko edozein mantentze-epe baliozkoren indarraldian. Halako ordezteak edo software honen —edo haren osagaien— aldaketa edo bertsio-berritzeak, SMARTek azken erabiltzaileari eskainiak (dela ordainketa gehigarri baten truke, dela ordainketa gehigarririk gabe, dela mantentzearen partetzat), software honen partetzat joko dira, eta kontratu honetako baldintzen pean izango dira, salbu eta lizentzia bereiziarekin eman badira; hala izanez gero, beste lizentzia horretako baldintzen menpe izango da softwarearen erabilera. Baldin SMARTek azken erabiltzaileari eskaintzen badio softwarea ordeztea, softwarearen aldatutako bertsioa edo bertsio-berritzea kosturik gabe, edo mantentzearen partetzat, a) azken erabiltzaileak, softwarea erabiltzen jarraitu ahal izateko, onartu egin beharko du softwarearen ordezkapen hori, aldatutako bertsio hori edo bertsio-berritze hori, eta harekin batera doan edozein lizentzia-akordio ordeztaile; eta b) softwarea ordezten, aldatzen edo bertsio-berritzen bada, azken erabiltzaileak softwarearen aurreko bertsioak erabiltzeko duen lizentzia bukatuko da.

6. **LIZENTZIA DESEGITEA:** Lizentzia indarrean izango da desegiten den arte. Azken erabiltzaileak edozein unetan buka dezake lizentzia hau. Horretarako, azken erabiltzaileak softwarearen erabilera utzi beharko du, eta bere jabetzan dituen softwarearen kopia guztiak suntsitu beharko ditu. Probaldia edo harpidetze-aldia bukatzean automatikoki amaituko da lizentzia, eta azken erabiltzaileak, probaldi edo harpidetze-aldi hori bukatzean, softwarea erabiltzeari utzi beharko dio eta bere jabetzan dituen softwarearen kopia guztiak suntsitu beharko ditu. Betiere gainerako eskubideak errespetatuz, SMARTek lizentzia hau desegin dezake baldin azken erabiltzaileak lizentzia honetako baldintzak betetzen ez baditu, SMARTen berariazko irizpideen arabera. Halakorik gertatuz gero, azken erabiltzaileak berehala utzi behar dio software hau erabiltzeari, software honen eta haren osagaien kopia guztiak suntsitu behar ditu, bere esku duen dokumentazio guztiak atzera ekarri edo suntsitu behar ditu, eta, eskatuz gero, azken erabiltzaileak zeregin horiek egin dituela dioen zinpeko adierazpena aurkeztu behar du.

7. **ESPORTATZEKO MURRIZTAPENAK:** Azken erabiltzaileak onartzen du ez duela esportatuko edo berresportatuko software hau, edo haren ezein osagai, edo software honen zuzeneko produktu den ezein prozesu edo zerbitzu (aurreko horri guztiari, osorik hartuta, «murriztapeneko osagaiak» deituko diogu) Kanadak edo Ameriketako Estatu Batuek esportatzea murriztua dieten ezein herrialdetara, ezein pertsonari edo ezein erakunderi. Azken erabiltzaileak berariaz onartzen du ez diela murriztapeneko osagairik esportatu edo berresportatuko honako hauei: (i) Kanadak edo Ameriketako Estatu Batuek ondasun edo zerbitzuen esportazioa bahitua edo murriztua dien herrialdeei, edota herrialde hartako ezein herritarri, edonon dagoela ere; (ii) azken erabiltzaileak dakiela edo susmatzen duela, murriztapeneko osagaiak arma nuklearrak, kimikoak edo biologikoak diseinatu, garatu, ekoitzi edo erabiltzeko, edota misilen azken erabilerarako nahiz trebakuntzarako, baliatuko dituen ezein pertsona edo erakunderi; edota (iii) Kanadako edo Ameriketako Estatu Batuetako erakunde ofizialen batek Kanadako edo Ameriketako

Estatu Batuetako esportazio transakzioetan parte hartzea debekatua dion ezein pertsona edo erakunderi. Azken erabiltzaileak adierazten eta bermatzen du Kanadako edo Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak ez dizkiola bertan behera utzi, baliogabetu edo ukatu esportatzeko dituen eskubideak.

8. **AMERIKETAKO ESTATU BATUETAKO GOBERNUAREN ESKUBIDE MURRIZTUAK:** Software hau «elementu komertziala» da, 48 CFR 2.101 lege testuan zehaztutakoari jarraituz. Osagai hauek ditu: «ordenagailuko software komertziala» eta «ordenagailuko software dokumentazio komertziala», termino horiek 48 CFR 12.212 edo 48 CFR 227.7202 lege testuan erabilitako eran, kasuan kasu. 48 CFR 12.212 edo 48 CFR 227.7202-4 lege testuarekin bat etorriz —kasuan kasu— ordenagailuko software komertziala eta ordenagailuko software dokumentazio komertziala Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuari lizentziarekin erabiltzea baimentzen zaio bi muga hauekin: *a)* elementu komertzial gisa baizik ez; eta *b)* hemen zehaztutako baldintzei jarraituz azken erabiltzaile guztiei eman zaizkien eskubideekin baizik ez.

9. **GARANTIA MUGATUA:** SMARTen zehaztapen argitaratuekin bat etorriz funtzionatuko du funtsean softwareak, laurogeita hamar (90) egunez, erakunde lizentziadunak software-lizentzia erosten duen egunetik. Mantentze-programa batek bestelako eskubideak ematen ez badizkio, erakunde lizentziadunak bere gain hartuko ditu softwarearen beharrezko zerbitzatze, konpontze edo zuzentze guztien kostu osoa. Berariazko garantia honi jarraituz, SMARTen betebehar bakarra izango da aukera hauetako bat hartzea, gastuak bere gain hartuta: 1) dagokion ordainagiriaren kopia batekin SMARTi itzultzen zaion ezein software-produktu akastunengatik erakunde lizentziadunak ordaindutako eroste-prezioa itzultzea; edo 2) akastuna den edozein baliabideren ordez, dagozkion SMARTen zehaztapen argitaratuekin bat datorren softwarea ematea. Ordezte-softwarea, jatorrizko garantiako alditik geratzen den aldirako edo hogeita hamar (30) egunerako garantiapean izango da (bi aldi horietatik luzeena). SMART konpainiak ez du bermatzen softwareak —edo haren ezein zatik— edo kanpoan utzitako elementuek produktu lizentziadunekin bezala funtzionatuko dutenik, produktu lizentziaduna ez den ezein bistaratze-gailu interaktiborekin. SOFTWARE HONEN EDO KANPOAN UTZITAKO ELEMENTUEN ERABILERA ORO, DAGOEN HARTAN ESKAINTZEN DA, ETA ARRISKUAREN ERANTZUKIZUNA AZKEN ERABILTZAILEAREN GAIN DOALA. APLIKATZEKOA DEN LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, SMARTEK ETA HAREN HORNITZAILEEK UKO EGITEN DIOTE GARANTIA ETA BALDINTZA BERARIAZKO NAHIZ INPLIZITU GUZTIEI; BESTEAK BESTE, MERKATURAGARRIA IZATEAREN, ZEREGIN JAKIN BATERAKO EGOKIA IZATEAREN, ETA JABETZA INTELEKTUALEKO TITULU ETA EZ BETETZEEN GARANTIA INPLIZITUAK (PRODUKTU LIZENTZIADUNARI, HAREN ZEINAHI OSAGAIRI, ETA KANPOAN UTZITAKO ELEMENTUEI DAGOKIENEZ), ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK EMATEARENA EDO LAGUNTZA ZERBITZUAK EMATEA HUTS EGITEARENA. BAINA EZ DA HORIETARA MUGATZEN. SMARTEK EZ DU GARANTIARIK EMATEN, SOFTWAREAREN FUNTZIONAMENDUAK EZ DUELA ETENIK EDO AKATSIK IZANGO. SMARTEK EZ DU SOFTWAREA PROBATZEN SMARTEK HORNITZEN EZ DITUEN PRODUKTUETAN. AZKEN ERABILTZAILEAK BERE GAIN HARTUKO DU SOFTWAREAK BEHAR BEZALA EZ FUNTZIONATZEKO ARRISKUA, SMARTEK HORNITZEN EZ DITUEN PRODUKTUEKIN ERABILTZEN DENEAN. GARANTIA MUGATU HONEK LEGEZKO ESKUBIDE ESPEZIFIKOAK EMATEN DIZKIO AZKEN ERABILTZAILEARI. BEHARBADA BESTE ESKUBIDE BATZUK ERE IZANGO DITU AZKEN ERABILTZAILEAK; JURISDIKZIO BATETIK BESTERA ALDATZEN DIRA.

10. **ERANTZUKIZUNIK EZ, ONDORIOZKO KALTEAK DIRELA ETA:** APLIKATZEKOA DEN LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, SMARTEK ETA HAREN HORNITZAILEEK EDO LIZENTZIA-EMAILEEK INOIZ ERE EZ DUTE ERANTZUKIZUNIK IZANGO PRODUKTU LIZENTZIADUNA, EDO BESTE SMART PRODUKTU BAT, SOFTWARE HAU, HAIEN ZEINAHI OSAGAI EDO KANPOAN UTZITAKO ELEMENTUREN BAT ERABILTZEAGATIK EDO EZIN ERABILTZEAGATIK (EDO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK EDO ZERBITZU HORIEK EMATEAN HUTS EGITEAGATIK) EGINDAKO KALTE BEREZIAK, KALTE INTZIDENTALAK, ZEHARKAKO KALTEAK, ADIBIDEZKO KALTEAK, ONDORIOZKO KALTEAK EDO ZIGORREZKO KALTEAK IZANEZ GERO, EDONOLAKOAK DIRELA ERE (BESTEAK BESTE, ZEINAHI PERTSONA EDO JABETZARI ERAGINDAKO KALTEAK, NEGOZIO MOZKINAK GALTZEAREN KALTEAK, NEGOZIOAK ETETEARENAK, NEGOZIOKO INFORMAZIOA GALTZEARENAK, PRIBATUTASUNA GALTZEARENAK, ORDEZKO ONDASUN EDO ZERBITZUAK ESKURATZEAREN KALTEAK, ERABILERA EDO DATUAK GALTZEAREN KALTEAK, EDOZEIN BETEBEHAR —ESATERAKO, FEDE

ONAREN EDO ARRAZOIZKO ARDURAZ JOKATZEAREN BETEBEHARRAK— HUTS EGITEAREN KALTEAK, ZABARKERIARENAK, EDO DIRUZKO BESTE EDOZEIN GALERARENAK). BERDIN DIO ERANTZUKIZUN HORI KONTRATUAN OINARRITZEN DEN, EDO ERRUZKO KALTEAN, EDO ZABARKERIAN, EDO ERANTZUKIZUN HERTSIA, EDO BESTELAKOA. OROBAT, BERDIN DIO SMARTI EDO ZEINAHI HORNITZAILE EDO LIZENTZIA-EMAILERI HALAKO KALTEAK GERTATZEAREN ARRISKUA JAKINARAZI BAZAIO ERE. ZENBAIT JURISDIKZIOK ERANTZUKIZUNARI UKO EGITEA EDO ERANTZUKIZUNA MUGATZEA ONARTZEN EZ DUTENEZ, BEHARBADA GOIKO MUGATZE HORREK EZ DIO AZKEN ERABILTZAILEARI ERAGINGO.

11. **ERANTZUKIZUN MUGATUA:** NOLANAHI ERE, SMARTEN ERANTZUKIZUN OSO ETA AZKEN ERABILTZAILEAREN KALTE ORDAIN BAKARRA, LIZENTZIA HONI JARRAITUZ, EZ DA IZANGO HAMAR DOLAR (CAD $10,00) BAINO GEHIAGOKOA.

12. **SMARTEN HORNITZAILEAK ETA LIZENTZIA-EMAILEAK:** LIZENTZIA HONI JARRAITUZ SMARTI DAGOZKION ERANTZUKIZUN EDO KALTE-ORDAINEZ EGITEN DEN EDOZEIN DESKARGU, UKO EDO MUGATZE, SMARTEN ONURARAKO INTERPRETATUKO DA, BAI ETA HONAKO HAUEN ONURARAKO: SMARTEN HORNITZAILEEN, LIZENTZIA-EMAILEEN, ENPLEGATUEN ETA KONTRATISTEN ONURARAKO. INTERPRETAZIO HORI HORRELA EGITEAK EZ DAKARKIE INOLAKO MUGARIK HORNITZAILE, LIZENTZIA-EMAILE, ENPLEGATU ETA KONTRATISTA HORIEK DITUZTEN BESTELAKO DEFENTSEI. AZKEN ERABILTZAILEAK ONARTZEN DU ALDERDI HORIEK ASKE UZTEA ERANTZUKIZUNETATIK ETA KALTE-ORDAINETATIK, ERANTZUKIZUN EDO KALTE-ORDAINEN DESKARGU, UKO EDO MUGATZE HORIEKIN BAT ETORRITA, XEDAPEN HORIEK SMARTI ERAGITEN DIOTEN NEURRI BEREAN.

13. **OROKORRA:**

13.1 **Isilpekotasuna.** Azken erabiltzaileak onartzen du software honek SMARTen eta haren hornitzaile nahiz lizentzia-emaileen isilpeko informazioa daukala. Azken erabiltzaileak halako informazioa erabiltzeko duen aukeraren neurri berean, informazio hori produktu lizentziadunen eta softwarearen erabilera baimendurako beste ezertarako ez erabiltzea onesten du azken erabiltzaileak. Azken erabiltzaileak, gainera, onartzen du isilpeko informazio hori beste ezein alderdiri ez jakinaraztea; eta isilpeko informazio hori bere isilpeko informazioa isilpean bezainbeste babestea, behinik behin zentzuzko zaintza mailarekin. Lizentzian honen pean erabiltzea baimendutako softwarea ere isilpeko informaziotzat hartuko da, eta, agiri honen bitartez berariaz baimenduta izan ezik, ez zaio ezein hirugarren alderdiri jakinaraziko.

13.2 **Babes judiziala.** Azken erabiltzaileak onartzen du ezen, azken erabiltzaileak lizentzia honetako edozein xedapen hausten badu, SMARTek ez duela ordain egokia izango dirutan edo kalte-ordainetan. SMARTek, horrenbestez, eskubidea izango du kontratuaren hauste horren kontrako babes judiziala izateko, eskumena duen edozein epaitegirengandik, eskatu eta berehala, jakinarazpena bidali beharrik gabe. Babes judiziala izateko SMARTek duen eskubideak ez du mugatuko areagoko ordainak bilatzeko duen eskubidea.

13.3 **Besterentzea.** Azken erabiltzaileak ezin du lizentzia honen barruko ezein eskubiderik besterendu (legearen eraginez edo bestela), aldez aurretik SMARTek idatziz onartu ezean. Onarpen hori, bestalde, arrazoirik gabe ere uka daiteke. Idatz-zati honen ondorioetarako, besterentze edo transferentziatzat hartuko da, besteak beste, azken erabiltzailearen gehiengoaren jabetza edo kontrola edonola aldatzea; adibidez fusioaren edo boto balioen bestelako transferentzien bidez. SMARTek lizentzia hau azken erabiltzailearen baimenik gabe besteren dezake. Betiere aurreko hori aintzat hartuta, lizentzia hau loteslea izango da, eta lizentziako alderdien eta haien legezko ordezkarien, ondorengoen eta besterendu onartuen onurarako aplikatuko da.

13.4 **Zuzentzea.** Lizentzia honen ezein aldaketa ez da loteslea izango, salbu eta idatziz egiten bada eta aldaketaren eragina nozitu dezakeen alderdiaren ordezkari baimendu batek onartzen badu.

13.5 **Hizkuntza.** Lizentzia honen itzulpen oro tokian tokiko eskakizunetarako egingo da, eta ingeles bertsioa eta ingelesekoa ez den edozein bertsio bat ez badatoz, Lizentzia honen ingeles bertsioa izango da arau.

13.6 **Lege aplikagarria.** Lizentzia hau Kanadako Alberta probintziako legeek arautzen dute. Aplikatzekoa den legeak onartzen duen neurrian, alderdiek modu ezeztaezinean onartzen dute lizentzia honen, software honen edo produktu lizentziadunaren inguruko edozein auzi Alberta probintziako auzitegietan edo Kanadako auzitegi federaletan (kasuan kasu) aurkeztuko dela. Azken erabiltzaileak onartzen du ez duela alegatuko azken erabiltzailea auzitegi horien jurisdikzioetara ez dagoela lotuta, jurisdikzioa ez dela egokia, eskumena ez dela egokia edo antzeko beste edozein eragozpen, erreklamazio edo argumentu. Lizentzia hau ez du arautuko Ondasunen Nazioarteko Salmentarako Kontratuei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak. Konbentzio hori aplikatzea berariaz baztertzen da.

13.7 **Lizentzia osoa.** Lizentzia hau da alderdien arteko hitzarmen eta lizentzia osoa, eta ordeztu egiten du aurretiko edo garai bereko beste ordezkapen, negoziazio, eskaintza dokumentu, proposamen, hitzarmen edo lizentzia oro, lizentzia honen gaiari dagokionez. Lizentzia honetako xedapenen bat baliogabe jotzen bada, lizentzia honen gainerakoak indar eta eragin osoa izaten jarraituko du hala ere.

13.8 **Uko egitea.** Alderdi batek agiri honen eraginez duen eskubideren bat noizbait erabiltzen ez badu, horrek ez du nahitaez ekarriko alderdi horrek uko egitea aurrerantzean eskubide hori edo beste edozein eskubide erabiltzeari.

13.9 **Ezinbestea.** Alderdietako edozeinek agiri honetan ezarri zaizkion betebeharrak huts eginez gero, hori ez da lizentzia honen urratzetzat joko, huts egite horien kausa baldin bada sutea, greba, gerra, asaldura zibila, terrorismo ekintzak, gobernu-arauak, izadiaren egintzak, edo ezinbestea alegatu duen alderdiaren arrazoizko kontrolpetik at den beste kausaren bat.

13.10 **Galderak.** Azken erabiltzaileak lizentzia honi buruzko galderarik egin nahi badu, edo azken erabiltzaileak edozein arrazoirengatik SMARTekin harremanetan jarri nahi badu, hona idatzi behar du:

SMART Technologies ULC
3636 Research Road NW
CALGARY, AB CANADA T2L 1Y1

13.11 **Iruzkinak.** Azken erabiltzaileak SMART konpainiari edozein iradokizun, iruzkin edo erantzun (software, lizentziadun produktu edo bestelako SMART produktuetako edozein osagairen aldaketak edo iradokitako aldaketak barne) egiten badio softwareari, lizentziadun produktuari edo bestelako SMART produktuei buruz, SMARTek ez ditu isilpekotzat joko, eta xede orotarako erabili ahal izango ditu. Gainera, ez dio horren ordainik emango Azken erabiltzaileari, ez du haren onarpenik beharko eta Azken erabiltzaileak ezingo dio inolako betebeharrik ezarri.

13.12 **Jakinarazpenak.** Azken erabiltzaileak jakinarazpenak egin diezazkioke SMART konpainiari, dokumentu honen harira, goian adierazitako helbidera bidaliz, edo SMARTek azken erabiltzaileari jakinarazitako azken helbidera, hartzailearen ohar hau jarrita: «Attention: Legal Department». Azken erabiltzailearentzako jakinarazpenak —besteak beste, softwarearen edo lizentzia honen eguneratzeak— egiteko, SMARTek bi aukera ditu. Bata, azken erabiltzailearen helbide elektroniko edo lantoki helbide erregistratura bidaltzea, edo azken erabiltzaileak SMARTi jakinarazi dion azken helbide elektroniko edo lantoki helbidera. Bestea, SMART produktuen eguneratze-programan jakinarazpena eskaintzea; menuko «Laguntza» fitxako «Bilatu eguneratzeak» aukeraren bidez eskura daiteke eguneratze-programa hori.

13.13 **Publizitatea.** Dokumentu honekin emango den lizentziari dagokionez, SMARTek lizentziaren titular den erakundea identifika dezake argitaratuko den SMARTen bezeroen zerrendan. Zerrenda osorik edo haren zati bat argitara daiteke.

13.14 **Indarrean irautea.** Lizentzia honen indarraldia edozein arrazoirengatik bukatzen bada ere, indarrean iraungo dute ondorengo idatz-zati hauetan ezarritako xedapenek: *2.2.m), 2.3.b), d), e), f), g), i), k), l)* eta *n), 6, 7, 8, 10, 11, 12, 13.1, 13.2, 13.6, 13.11, 13.12, 13.13* eta honako *13.14* idatz-zati honetan ezarritakoek, alegia; bai eta *9.* idatz-zatian ezarritako mugek ere.

SMART eta SMARTekin erlazionatutako markak SMART Technologies ULC konpainiaren edo haren kideen marka erregistratuak dira, eta beharbada Ameriketako Estatu Batuetan eta beste jurisdikzio batzuetan erregistratuta izango dira. Beste marka eta logo batzuk, zein bere jabearen marka erregistratuak dira. SMART Ink™ softwareko PDF teknologia PDFNet SDK, © PDFTron™ Systems Inc., 2001-2011 konpainiarena da, eta SMART Technologies konpainiak lizentziapean banatzen du.

© 2011-2013, SMART Technologies